

IZKUNTZA

«Izkuntza, etniaren (erriaren) zatirik ederrena eta go-ragarriena da. Gizarteko artu-emonetarako bakarrik baltz, bere egiazko balioa moztuta legoke.

Baiña izkuntza kultura baten burdia da, gogo baten izpillua, erri baten balioaren eleiza nagusia bezela».

Guy Heraud'ek.

«L'Europe des ethnies» liburuan.

Liburu eder orretan idazle jakintsu onek izkuntzari buruz beste gauza eder eta andi asko esaten ditu.

IZKUNTZA ERRI BATEN OIÑARRI

«Izkuntza erriaren arima da, eta bere gorde-leku eta babes».

«Izkuntza bat galtzeak, kultura baten galtzea dakar, izkuntza dalako erriaren kulturaren agerpena eta mamia».

«Erri baktzak bere izkuntza berezia dauka, eta kultura baktzak bere izkuntza». *Guy Heraud*.

«Erri andi eta indartsu batek, beste erri txiki bat galtzea nai dauenean, leenen-leenengo alegin guztiak egiten ditu, erri txiki orren izkuntza iltzeko». *Guy Heraud*.

EUSKERA GURE IZKUNTZA

1925'garren urtean leiaketa (konkurso) bat egin zan euskaldunen artean nork «slogan» politagoak asmatu euskeraren alde, eta esaldi oneik irabazi ebezan gorengo mailakoak, oneixek dira:

«Jaungoikoak txori-enda baktxari bere abestia emon deutso, lora baktxari bere usain-gozoa, eta aberri baktxari bere izkuntza».

«Euskaldunai, euskeraz». «Euskera barik, ez da Euzkadirik».

«Euskaldun: euskera baiño izkuntza arroagoak ba dira, zureagorik ez».

«Izkuntza baktxa gogoaren odola da. Izkuntza aldatzea gogo aldatzea da».

«Nai dituzun izkuntza guztiak buruan artu egizuz, baiña biotzean beti Euskera».

«Euskera maite dogu, *zarra* dalako, ederra dalako, gure mendierako lora usaintsua dalako, baiña batez bere GURE-GUREA dalako». *Karmelo Etzegarai*.

GOIKOETXEA'tar Iñaki

UMEKERIAK

EUN PEZETAKO TXARTEL BATEN GORA-BERAK

Kaixo!, eun pesetako txartel arrunta bat naz, nire azalean Manuel Fallaren irudia dago eta orain nire kondairatxo esango dautzuet.

España'ko banketxetik egun baten urten nintzan, gizon zar baten esku barruan gordeta, arineketan gizon zarraren etxera joateko.

Gizon zar ta zeken onen etxean ille batzutan egon nintzan baiña egun eder baten gizon zar ta zekenak lepoko berogarri bat erosi bear eban eta denda aretan itzi ninduan.

Denda aretan ondo egon nintzan, kutxa barruan beste txartel batzukaz

batera, ta bero bero egon nintzan ta bereala beste txartelen lagun egin.

Egun batzuk igaro ziran ta egun baten dendako serbitzari batek artu ninduan eta barrero kalean aurkitzen naz.

Ondoren neskazar bategaz egon nintzan. Bera, neskazarra bere lagun bategaz etxe-oin zaar baten bizi zan.

Neskazar au beti ariñeketan ibiltzen zan eta orregaitik egun baten autobusera igotean kalera jausi nintzan, esku-zorroitik urten nebanean bustirik, gizon zarpil, memelo batek artu ninduan.

Bera oso pozik egoan eta baita nire ere.

Berak jarleku baten eguzkitan ñi ninduan legortzeko ta orduan taberna baten niri eskerrak, egun aretan baskaldu eban.

Gerotxoago tabernako ugazabaren diru poltsan gelditu nintzan.

Illeko lenengo egunean serbitzariarengana joan nintzan ta, zer jazo zan?

Serbitzari onek nigaz bere lenengo alogera artu eban ta orregaitik margo baten ipiñi ninduan ta emen nago Kamareroaren gelako orman, eta emen bizi naz ta pozik atan be.

OLEAGA'tar Karmele